

# I. DEMOKRAZIA LIBERALEN OINARRI TEORIKOAK

## 1. Demokraziaren historia. Demokraziaren historia eta demokrazia kontzeptuaren bilakaera. 1. testua: Peña, J. (2008): "La democracia en su historia"

- *Hasiera batean Grezia izan zen*
  - *Atenasko demokraziaren esperientzia*
  - *Demokrazia grekoaren printzipioak*
  - *Demokraziari egiten zaizkion kritika grekoak*

Isegoria: asanblean hitz egiteko eskubide, askatasun berdintasuna.

Isonomia: berdintasun zibil eta politikoa (legearen aurrean denok gara berdinak, 63. orrialdean).

**Demokraziaren nukleo gogorra:** askatasuna (erabaki politikoen prozeduretan indibidio guztiek zer esana badute) eta berdintasuna (pertsonek guztiek askatasun berdinez disfrutatzen dute). Hiritar aske eta berdinen gobernua izango litzateke demokrazia.

### ● Platon eta demokrazia

Platonen arabera gobernu perfektuena aristokrazia izan zen. Hori dela eta, demokraziaren aurkako joera zuela esan daiteke. Demos terminoari dagokionez, Platonek hitz honi ematen dion adiera adierazgarria da.

**Demos:** herria, biztanle aske eta berdinak, askatasun zibil eta politikoa daukaten biztanleak, eduki moralak kontuan hartu gabe hain zuzen ere. Isegoria eta isonomiaz gozatzen zuten gizabanakoak. Gauzak horreka, testuinguru honetan hiritarrak polisaren atalik txikiaren parte ziren / **Demos:** balorazio moduan ulertua, jendetza, jendaila, jende xehea, ezgaiak, ezjakinak, irrazionalak

Demosa, beraz, denboraren baitan gero eta handiagoa dela pentsa daiteke. Sufragio unibertsala honen adibide argia da. Hala ere, sufragio unibertsal honek zulo asko ditu.

Hiritarra: deskripzio demografikoa/ Hiritarra: adiera moralak

Sufragio zentsitarioa: bozkatzeko eskubide mugatua. Baldintzak desberdinak izan zitezkeen, hala nola, kokapen ekonomikoa, ikasketen maila, jabetzak...

Peñak demokraziaren historiaren eta demokrazia kontzeptuaren historiaren arteko bereizketa egiten du. Hau da, demos kontzeptuaren inguruan adituek erakutsi edo defendatu dituzten joerak aztertzeaz arduratuko da.

- *Demokrazia eta errepublika: Erromatik XVIII. mendera*
- *Errepublika erromatarraren eredua (68. orrialdea)*
- *Erdi Aroko errepublikanismoa eta Estatu modernoa*

- **Demokraziaren ezkutzea (eklipsea): Ciceron 106-43 - 1776 Amerikako Estatu Batuen independentzia**

Tradizio errepublikarra k.a. 322 urtetik 1789. urtera luzatzen da, edo mende hauetan antzeman daitekeen joera da. Tradizio liberala aurrerago ematen da.

- **Tradizio errepublikarra:** Aristoteles abiapuntu gisa har daiteke, Zizeron, Spinoza, Rosseau

Ez da estatu forma bat (monarkia vs errepublika) tradizio politiko bat baizik, *res publica*. Esan bezala, mendebaldeko historia osoa zeharkatzen du (Aristoteles, Zizeron, Spinoza, Rosseau...). Tradizio honi dagokionez zenbait ezaugarri aipa daitezke:

- **Hiritartasun** kontzeptu sendo edo kementsua: bertute zibikoak, esfortzua, meritua..., parte- hartzea bizitza politikoan
- **Deliberazioa:** erabaki politikoak hartzea deliberazio prozesu batean bitartez. Hau da, deliberazioa argudio onak bilatzea izango litzateke. Erabakiak hartzeko modu desberdinak daude, deliberazio prozesua edo negoziazio prozesua. Bigarrenean, negoziazioan, indarrak dauka pisu gehiena. Beraz, ez dira argudio onak bilatzen, ez da hausnarketa egiten. **Gehien dakiena vs indar gehien daukana.** Gauzak horrela, deliberazioa ideal bat dela esan genezake.
- **Legea:** Legea betetzeko beharra, legearen inperioari errespetua, izan ere, legea da aske egiten gaituena (askatasun positiboa). Tradizio liberalean, berriz, legea askatasun liberalaren oztopoda da. Beraz, tradizio errepublikarrean askatasun negatiboa defendatuko litzateke, hau da, legeak aske egiten gaituela sutzuki defendatzen dute. (Liberalek legea askatasunaren oztopo gisa ulertzen dute. Halaber, jabetza pribatu zein askatasun liberalari ematen diote garrantzia)

Tradizio honek **ibilbide luzea** daukala kontuan izan behar da K.a.322- 1789...

Errepublika ez da demokraziaren sinonimoa. Hala ere, nukleo normatibo bat antzeman daiteke. Beraz, ezaugarri amankomunak dituztela esango genuke.

- **Spinoza (1632-1677):** Demosaren pertzepzioa, ikuskera aldatzen du (Demos Plaon bezalako autoreen arabera: herri xehea, arrunta, irrazionala, ezjakinak, pasioez beteta...)

Errepublikanismo demokratikoa. Spinoza demokrazia defendatu zuen lehena izan zela esan daiteke. Alderdi teorikoan lantzeaz gain, praktikara eraman zuen. Spinozak demos

kontzeptuaren esanahia aztertu eta aldatzen du, ikuskera ezkorrar horren aurka egiten du (ezjakinak, irrazionalak...). Irrazionaltasuna ez du jende arruntaren esparrura mugatzen, goi mailako klaseetan pasio eta bulkada berdinak aurki daitezkeela aldarrikatzen du. Era berean, gizakiaren gaitasun politikoak goraiatzeko ditu.

Spinozaren eragina Rosseau eta Kanteren lanetan antzeman daiteke. Auzi politikoak ulertzeko eta hauen gainena erabakiak hartzeko garaian hain zuzen ere.

- **Liberalismoaren bidea**

1776: Locke 1789: Rosseau

*Macridis, Roy C. : Las ideologias politicas contemporaneas*

Liberalismoa XVIII. mende bukaeran sortutako doktrina sozial, politiko eta ekonomikoa da, gobernu absolutistaren aurka gogor altxatzen dena, forma despotikoen aurrean banakoaren askatasunak eta eskubide zibilak aldarrikatuz.

Hiru gune edo nukleo bereiz daitezke:

- **Nukleo morala**
- **Nukleo ekonomikoa:** liberalismoa klase burgesen ideologia izan zen, jardun ekonomikoaren liberalizazioa bilatzen zuena, Adam Smith edo J. Bentham-ek teorizatu zuten bezala. (Kontratuak ezin dezake esku hartzerik, gu libre bezala sinatzen duguna gure artean geldituko litzateke)
- **Nukleo politikoa:** Botere gehiegikeriak ekiditeko, botere banaketa sustatu zuten (legegilea, betearazlea eta judiziala, Montesquieu), bereizkeria hori Konstituzioaren bitartez bermatuz: Konstituzioa idatziak botere bakoitzaren eginkizunak eta mugak zehazten dituzte, instituzionalizatuz. Hala, Zuzenbide Estatua sortu zen, legearen inperioa, agintari guztiak legearenpean ezarriz, eta horiek hautatzeko eta aldiari aldiari aldatzeko prozedurak asmatuz. Beste era batera esateko, ordezkapenezko gobernuak bultzatu zituzten: botere legegilea behintzat herritarrek (edo horietako batzuk) aukeratutako ordezkarien esku jarritz. Lockek planteatu zuen moduan, berri ere "bizitzarako, askatasunarako eta jabetzarako eskubideak" babestea izango zukeen helburu gobernu horrek.

### **Hiritarra/ Herritarra**

Herritarra biztanlea da. Hiritarra eskubide/askatasun zibil eta politikoak dituena

XIX. mendeko liberalismoa horrek, ordea, askotan, banakoaren iniziatiba pribatuan jartzen du arreta guztia, Estatuaren esku-hartzea eta arlo publikoetan baino. Era berean, sufragio subiranotasunaren idearekin mesfidati agertzen ziren (MILL). Sufragio mugatuaren alde egiteko nahia antzematen da.

Beraz, zergatik elite burgesek (XIX) onartu zuten sufragio unibertsala??

2022/09/23

- XVIII. mendeko iraultzak eta demokrazia
- AEB-KO errepublika ordezkatzailerako
- Frantziako Iraultza eta herri subiranotasuna

(Azterketarako galdera: zeintzuk dira bi iraultzetako funtsezko printzipioak?)

### *Demokrazia zuzenetik ordezkatzailerako ibilbidea*

Atenasko demokraziarekin konparatuz, zein da eman zen desberdintasun handiena? Baldintza materialak erabat desberdinak ziren: polis vs estatu modernoak. Estatu Modernoek ordezkari politikoen beharra ekartzen du. Herriak nolabaiteko indarra galtzen du. Nahiz eta boterearen oinarria, jatorria eta funtsa izan, boterearen erabilera praktikoa ordezkari politikoen eskuetan geratzen da. Herria, beraz, ordezkari hauek hautatzera mugatzen da. Hori dela era, demokrazia zuzenaren eta zeharkako demokrazien arteko bereizketa egin beharko genuke. Atenasen Asanbladen bitartez herriak erabaki politikoetan parte hartze zuzena zeukan, estatu modernoetan ez bezala.

Estatu handietan demokrazia zuzena ez da posiblea, ez da faktikoa. Baldintza materialek eragin zuzena daukate. Hala ere, hau saldu diguten iritzia da.

- **Tradizio liberala 1776 (AEB-ko Iraultza, independentzia ematen da eta estatu modernoak osatzen dira):** Gobernu ordezkatzailerako. (Rosseau)
- **Tradizio errepublikarra 1789 (Frantziako Iraultza):** Herri subiranotasuna (Locke)
- **Demokraziaren bi tentsio nagusiak**

Tradizio liberala barne, gaur egungo demokrazietan bi tentsio nagusi bereiz ditzakegu:

#### *1. Gehiengoak vs gutxiengoak: gehiengoaren borondatea vs banakoari errespetua:*

Demokrazietan gehiengoak esaten duena egin behar dugu. Hala ere, aldi berean, gutxiengoak garrantzia dauka. Gehiengoaren borondatea gutxiengoaren borondatearen gainetik beti betetzen bada, gutxiengoaren haserrea piztea geratzea oso posiblea da. Demokrazia liberaletan banakoaren lehentasuna nabarmentzekoa da, bere eskubideak defendatzeko ahalegin handia egiten da. Giza eskubideak gehiengoaren borondatearen gainetik kokatzen dira.

#### *2. Demokrazia ereduak*

Zuzena vs zeharkakoa, parte-hartzailea vs ordezkatzailerako, errepublikanoa vs liberala, ideala vs erreala

- **Demokrazia vs liberalismoa**

1. **Demokrazia:** Taldearen subiranotasuna, gehiengoaren borondatea, publikoa (guztiona), berdintasuna/ askatasun positiboa, botere edo legearen aurrean: jarrera positiboa-zibikoa, parte-hartzeko premia, tradizio errepublikarra.
2. **Liberalismoa:** Banakoaren subiranotasuna, gutxiengoari errespetua, pribatua (nirea), askatasun negatiboa, botere edo legearen aurrean: jarrera defentsiboa, mesfidantza, parte ez hartzeko eskubidea, tradizio liberala.

*La democracia no tiene facil acomodo en el nucleo liberal, estableceria intromisiones e imposiciones. Bi parteek zerbaiti uko egin diote oreka bilatzeko asmoz: demokrazia liberala.*

- **Askatasun negatibo eta positiboa**

- Implizituki: Rosseau, Marx, Locke, Mill, Kant
- Benjamin Constant: *Discursso sobre la libertad de los antiguos comparada con la de los modernos* (1819)
  - Antzinako askatasuna (positiboa, kolektibo)
    - Parte hartze aktiboa erkidegoko botere politikoak
    - Greziarrak “libre” ziren beren burua kolektiboki gobernatzeko baitzuten
- (Tradizio liberala) **Askatasuna negatiboa:** oztopo edo interferentzia eza. Libre naiz ezerk edo inork nire jardura oztopatzen ez duen neurrian.
  - Libre naiz legearen gorabera. Legea askatasunaren murrizketa izaten da, beraz, legearen aurrean mesfidantza nagusitzen da.
- (Tradizio errepublikarra) **Askatasun positiboa:** askatasuna mirabetza, esklabutzaren aurkakoa da. Libre naiz nire bizitzaren jabea naizen neurrian. Libre izate nork bere buruari obeditzea da. (Rosseau)
  - Libre naiz.. legearen bitartez. Legez kanpo askatasunik ez. Beraz, legea oso baliotsua da.

- **Bi iraultzek sortutako ideien sintesi bat dira gaur egungo demokrazia ordezkatzailerak: Demokrazia liberalak**

Frantziako Iraultzan agertutako ideia demokratiko era errepublikanoak (Rosseau) eta Ipar Amerikako iraultzak agertutako ideia liberalak (Locke, eskubide naturalak: bizitza, askatasuna eta jabetza pribatua)

- Askatasuna: la libertad negativa queda razonablemente garantizada
- Berdintasuna: oso urrun geratzen gara isonomiatik

- *El camino a la democracia liberal representativa contemporanea*
  - *El liberalismo frente a la democracia*
  - *El desarrollo de la democracia liberal representativa*

**Marxismoa:** estatua beti izango da burgesa, klase zehatz batena. Nola lortu klaserik gabeko gizartea? Iraultzaren bitartez.

**Sozialdemokraziak** sistema onartu du, eta sistemaren barne sartzen da, joko demokratikoan parte hartuz.

**Ongizatearen liberalismoa**

**Neoliberalismoa**

**Filosofia analitikoa (anglosajoa) eta kontinentala:** filosofia egiteko era desberdinu daiteke.

- **Karl Marx (1818-1883), Engels (1820-1895)**

- **Marxismoaren zentzu ezberdinak**
  - **Zentzu ekonomiko soziologikoa**

Gizarte jakin baten (burgesaren) errealtate sozialaren teoria zientifikoa. Gizarte burgesa eta bere ekoizteko modu bereziaren teoria zientifikoa da (soziologia)

- **Zentzu politikoa (nagusitasuna: Marx iraultza proletarioaren zerbitzura dago)**

Errealtate soziala aldatzeko jarduera edo ekintza iraultzailea da

- **Zentzu kritiko-filosofikoa**

Marxismoa mendebaldeko filosofiaren kritika da, Hegelen idealismoaren aurkakoa adibidez. “Los filosofos no han hecho mas que interpretar de diversos modos el mundo, pero de lo que se trata es de transformarlo”

**Iraultzarako bidea: teoria ekonomikoa, kritika filosofikoa: iraultza**

- **Marxismoaren iturriak**
  1. **Filosofia alemaniarra: Hegel bereziki:** metodo dialektikoa eta historiaren ikuskera progresista eta teleologikoa.
  2. **Feuerbach (1804-1872):** “ezker-hegeliarra”: norabide materialista eta alienazioaren kontzeptua erlijio arloan
  3. **Sozialismo utopiko frantsesa:** Estatuaren barne posiblea zen aldaketa ematea, eragitea. Saint Simon edo Fourier: beren pentsamendu politikoerarik ideia sozialista eta iraultzaileak, klase borrokaren ideia...
  4. **Liberalismo ekonomiko ingelesa:**
    - Adam Smith eta David Ricardo: analisi ekonomikoarako tresna teknikoak edo lan balioaren ideia (merkantzia guztiek duten erabilera balioa edo truke-balio)
    - *Las tres fuentes y las tres ... del marxismo:* Lenin
  5. **Bakunin edo Proudhon-en anarkismoa**

- **Karl Marx: Materialismo historikoa**

Gizakiaren ezaugarriak nagusia eta beraz, animaliangandik bereizten den ezaugarria: Gizakiak **lan** egiten duela, lan egiteko gaitasuna hain zuzen ere. Bizirik mantentzeko behar ditugun baliabideak sortzeko gaitasuna dugu, animaliek, berriz, naturan dauden baliabideak zuzenean hartzeri mugatzen dira. Garai historiko bakoitzean baliabide horiek sortzeko bidea desberdina da:

- **Produkzio moduak** (ekoizpen-egiturak): tribala, antzinakoa, feudala eta kapitalista
- **Gainegitura:** juridiko politikoa (erakundeak, estatua) eta ideologikoa (erlijioa, moralitatea, artea, kultura, filosofia).
- **Azpiegitura ekonomikoa**
  - **Produkzio indarrak**
    - Materia (gordina edo prima)
    - Lan indarra (langilearen aktibitatea)
    - Produkzio edota lanerako baliabideak (tresnak, lurra, lantegiak, makineria...)
  - **Produkzio harremanak**
    - Lankidetzak (guztiak produkzio baliabideen jabeak direnean)
      - Jabetza pribaturik ez (komunismo primitiboa, ekoizpen modu tribala)
    - Esplotazioa (gutxi batzuk ekoizpen baliabideen jabeak direnean)
      - Jabetza pribatua eta klase sozialak
      - jabea/ esklaboa

<b>Produkzio modua</b>	<b>Produkzio harremanak</b>	<b>Esplotazio mota</b>	<b>Bestearen lanaz jabetzeko modua</b>
antzinakoa	jabe/esklaboa	esklabotza	langilearen jabetza pribatua, derrigortze, hertsapena.
feudala	jauna/morroia	morrontza	hertsapena
kapitalista	kaitalista/proletarioa	soldata	hertsapenik gabeko jabetza (?)

Kapitalismoak langileak formalki libreak direla esan daiteke, hala ere, informalki, beharrak bultzatuta lotzen da lanera. Kapitalistak langileak bestelako merkantzien antzera

esplotatzen du. Bi klase argiak bereizten dira, lan baliabideak dituenak eta langileak hain zuzen ere.

- Erdiko klasea??? (Burgesia langilearia eskema edo egitura mantentzen da). Klase borrokaren kontzeptuak bizirik mantentzen al da?

Hegelen aurka Marxek norabidea aldatzen du, garai bakoitzeko baldintza materialek sortzen dute gainegitura, eta ez alderantziz. Ideologiak ez du norabide horretan eragiten.

#### - **Burgesiaren amarru ideologiko handia**

Idea menperatzaileak, ideologiak, eliteek sortu duten asmakuntzak dira, boterea zuritu zein mantentzeko hain zuzen ere. Beraz, langileriak kontzientzia faltsua duela esan genezake, izan ere, guztiz baldintzatua dago. Langileak beraz, klase kontzientzia bereganatu behar du (ez sinistu berdintasuna eta ustezko askatasuna)

- Soldata: menpekotasuna zurituzeko tresna
- Estatua: botere liberala zurituzeko tresna

#### - **Marx eta soldata**

Esplotazio harremana zuritu edo ezkutatzeko bi tresna edo kontzeptu sortzen ditu: Soldata eta estatua. Soldatari dagokionez, langilea lana hartzeko edo ez hartzeko librea dela pentsa daiteke, hau da, formalki askea izango litzateke. Hala ere, argi dago beharrak menperatzen duela, eta beraz, baldintza kaxkarrak onartzeko prest agertzen da.

Marxismoak sistemaren kanpo egiten du borroka, sozialdemokraziak berriz, sistema osatzen duten erakundeak onartzen ditu. Biek justizia soziala bilatzen dute, hala ere, bidea oso bestelakoa da. Marxen arabera ezin da jabetza pribatua mantendu (lan-soldata harremana berez bidegabekoa da). Bere helburua beraz, 1. langileria “ideologia liberal”- a alboan uztea eta klase-kontzientzia hartzea. 2. produkzio baliabidee jabetza pribatua indargabetzea.

Bestalde, ongizatearen liberalismoa daukagu (sozialdemokrazia): aberastasuna modu bidezkoagoan banatuz hain zuzen ere. Honetan, neurri batzuk ezarriko lirateke, baretik eginak direnak alegia: 1. bidezko soldata, soldata justua. 2. zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa.

- **Benetako emantzipazioa**
- **Non kokatzen dugu liberalismoa?**

Askatasuna eta berdintasuna. Ezin dugu berdintasunaren nagusitasuna sustatu edo askatasunaren lehentasuna aldarrikatu, biak gure kulturaren funtsezko oinarriak baitira. Bata kenduz gero bestea ere eroriko litzateke. Batera joan behar diren zutabeak dira.



	Ezkerra	Eskuina
Esparru pertsonala, soziala, kulturala	Liberala	Esku hartzea defendatzen du
Esparru ekonomikoa	Esku-hartzea sustatzen du, gizartean ematen diren desadostasun ekonomikoak ekiditzeko edo gutxitzeko hain zuzen ere.	Liberala, esparru ekonomikoan mugarik eza defendatzen dute: enpresei oztopo gutxi, zergak gutxitu...

Liberalismoak eskuina eta ezkerreko gauza askotan. Liberalismo zibilizatuaz ari naiz: gizarte beharrak asetzeko asmoz ekonomiaren nolabaiteko kontrola onartzen duen liberalismo politikoaz.

Tradizionalki, ezkerreko interbentzionalismo ekonomikoa eta liberalismo politiko eta kulturala defendatu ditu. Eskuinak, berriz, kontrako defendatzen zuen: liberalismo ekonomikoa era interbentzionalismo edo kontserbadorismo politiko eta kulturala. Ezkerreko justizia sozialaren alde egiten zuen apostua, oinarriko ondasunen zerga-politika birbanatzaile batekin. Eskuinak, berriz, esku ikusezin baten alde egiten du.

Hala ere, dikotomia hau desagertzen ari da eskuina gizarte eskaerei amore ematen duen neurrian eta liberalago (ohiturei dagokionez) bihurtzen den neurrian. Ezkerreko mantendu beharrekoa ondo kontserbatu behar dela aldarrikatzen du.

¿Debe la izquierda ser socialista? (5. puntuan arreta jarri)

Sufragio unibertsala: demokrazia nagusitu da bain aelite agintari politiko, ekonomikoek eutsi diete haien botereari (83. orrian dagoena). Nahiz eta demosari ateak ireki botereak berdintzat hartzen du. Demosaren ikuskera txarra ez da soilik eskuinean ematen, baita ezkerrean ere (herriak benetan, ez daki zer komenti zaion, eta horrexegatik, gidatu behar zaio)